



EUSKADIKO IGERIKETA FEDERAZIOA FEDERACIÓN VASCA DE NATACIÓN

Julián Gaiarre, 50-Etxabea – 48004 Bilbo

Teléfonoa 94 459 81 96 – Fax 94 459 81 97

01 / 2016 ZIRKULARRA

EUSKADIKO LIZENTZIEN IZAPIDEAK 2016/2017 **DENBORALDIA**

Jarraian azaltzen da denboraldi honetako lizentziak bideratzeko eta bidaltzeko prozesua. Gogoraraztea denoi erabat debekatuta dagoela txapelketa OFIZIALETAN parte hartzea, dagokion eta indarrean dagoen EUSKADIKO FEDERAZIO LIZENTZIARIK gabe, zeinek Lurralde Federazioan eta Euskadiko Federazioan adskribituta egotea suposatuko duen, arau honen konplimendu eza Klubaren eta Lurralde Federazioaren ardura izanik (II. Izenburua - 9. Art. EIF-FVN-ren Estatutuena eta 23. Art. eta hurrengoak, Euskadiko Kirol Federaziotako urtarilaren 31ko 16/2006 Dekretuarenak).

Lizentziak bideratzeko hasiera epea zabaltzen da, urriaren 1etik 15era (biak barne). Jarraian eta denboraldian zehar, klubek lizentziak bideratu ahal izango dituzte une orotan, indarrean dagoen prozedurari jarraiki. Hala ere, lizentziak bideratu beharko dira **gutxienez 15 egun lehenago txapelketa ospatu baino** modalitatean parte hartzeko. Dagokion Lurralde Federazioa eta EIF-FVN bere kasuan, lizentzia ukatzeko moduan izango dira, epe hori zehazki betetzen ez bada.

Edozein modalitatetan lagapen bat bideratzeko, LAGAPEN ESKAERA (3. ERANSKINA) aurkeztu beharko da, hogeita hamar (30) lanegunen buruan, EIF-FVN-ren Batzordean kirol egutegia aurkezten denetik.

1. Lizentziak bideratzea eskatuko da RFEN-EIEF-ren ISIS sistema dela medio.
2. Aldi berean, **KLUBAK** aurkeztuko du bere **LURRALDE FEDERAZIOAN** ondorengo dokumentazioa:

A.- Eskatu lizentzien zerrenda, adierazte dutenak gutxienez izena, bi abizen, NAN zenb. eta jarduera.

B.- DERRIGORREZKOA DA NAN FOTOKOPIA lizentzia bideratu nahi duen ororentzat. Ez da bideratuko lizentziarik behin-behineko zenbakiarekin. Lizentziaren izapideak egin ahal izango dira NAN bideratzeko egiaztagiriarekin, hura eskuratu bitartean. Aurreko denboralditan jadanik NAN ekarri zutenek, datu aldaketaren edota iraungitzearen kasuan soilik aurkeztu beharko dute.



EUSKADIKO IGERIKETA FEDERAZIOA FEDERACIÓN VASCA DE NATACIÓN

Julián Gaiarre, 50-Etxabea – 48004 Bilbo

Teléfonoa 94 459 81 96 – Fax 94 459 81 97

C.- LEGE OSASUN EGIAZTAGIRIA, KIROLARIENTZAT: Agiri honetan egiaztatzen da kirolariak gaitasuna duela kirola praktikatzeko orduan (Euskadiko Kirol Federaziotako urtarilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 29. Artikuluari jarraiki).

D.- TEKNIKARI TITULUAREN FOTOKOPIA.: Teknikari lizentzia bat eskatzeko, ondorengo titulazioen bat aurkeztu beharko da:

- Monitorea, Entrenatzaile Laguntzailea edota Goi Mailako Entrenatzailea, RFEN-EIEF-ren titulazioak.
- I. mailako Entrenatzailea Igeriketan edo II. Mailako Entrenatzailea Igeriketan, Euskadiko Kirol Eskolak emandako titulazioa (Eusko Jaurlaritzaren titulu homologatua).
 - Waterpolo teknikariaren Prestakuntza Ikastaroa, Euskadiko Igeriketa Eskolak emandako titulazioa.
 - Igeriketa sinkronizatuko teknikariaren Prestakuntza Ikastaroa, Euskadiko Igeriketa Federazioak emandako titulazioa.
 - Jarduera Fisiko eta Kirolaren lizentziatura edo gradua edo Kirol Irakasle gradua.

DERRIGORREZKOA IZANGO DA TEKNIKARI LIZENTZIAREN ESKAERA GUZTIAK DAGOKION TITULUAREN FOTOKOPIAREKIN BATERA AURKEZTEA.

99/10/1an ospatu Batzordeari jarraiki, Klubek Teknikari Lizentzia bideratzean kontuan hartu beharko dute, gutxienez horietako batek Entrenatzaile Laguntzailearen titulazioa erabilgarri izatea, tituluaren fotokopiarekin egiaztatu behar izanik.

E.- BANKU AGIRIAREN FOTOKOPIA justifikatzen duena LURRALDE FEDERAZIOAN ordaindu izana, eskatu lizentzien inguruko kuota.

3. Ez da inolako lizentziarik bideratuko, aurreko bi ataletan adierazia ERABAT betetzen ez duenik.

LIZENTZIEN KUOTA

Denboraldi honetarako ondorengo Kuotak ezartzen dira Lizentzia bakoitzeko, dagokion Lurralde Federazioak EIF-FVN-ri ordainduko diona:



EUSKADIKO IGERIKETA FEDERAZIOA FEDERACIÓN VASCA DE NATACIÓN

Julián Gaiarre, 50-Etxabea – 48004 Bilbo

Teléfonoa 94 459 81 96 – Fax 94 459 81 97

LIZENTZIA KUOTA: 55 €, ondorengo kontzeptuengatik:

- 23,00 € EIF-FVN-ren egitura eta funtzionamendua finantzatzeko.
- 17,00 € Lurralde Federazioaren egitura eta funtzionamendua finantzatzeko.
- 15,00 € titularraren osasun arriskuak estaliko dituen osasun laguntzaren derrigorrezko aseguruetarako, erantzukizun zibilarrena eta diru-laguntzarena heriotzatik eta anatomia zein funtzio galerengatik.

2 ONDOZ ONDOKO JARDUERAK: 0 €, bigarren jardueratzat hartuko da KLUB BERAREKIN jadanik lizentzia eskuragarri izaten denean eskatu izaten den hura.

Lizentzia eskatzen denean 1. LIZENTZIARENA ez den BESTE KLUB BATEKOA, xede guztietarako 1. Lizentzia bezala kontsideratuko da, 55,00 €-ko kopurua ordaindu behar izanik (edo FVN-EIF-ren batzordeak erabakitzen duena).

Arbitroen kasuan, Lurralde Federazio bakoitzeko Lurralde Batzordeek Klubaren tratamendua izango dute.

Arbitroaren eta txapelketa laguntzailearen Lizentzien kuota 20,00 €-koa izango da, beste jarduera batean lizentziarik indarrean izaten ez dutenean.

LIZENTZIEN ORDAINKETA: Lurralde Federaziotan egingo dira, bai kirolarienak eta bai Klubarenak, eta hilerik likidatuko dira EIF-FVN-rekin, kontzeptu hauengatik zordundu kopuruak.

Lizentzien hileko ordainketari dagokionez Lurralde Federazioek eginiko konplimendu ezak dagozkion lizentziak ez bidaltzea eta horretatik eratorri ondorioak ekarriko ditu.